

ARDI ZURIA ARTALDE BELTZEAN

“Iratzargailu”

OLERKIAK, A maila

Negar zotinka
eskaileretan behera noa.
Eguzkia zeruan dir-dir da,
baina bilatzen dut loa:
nire mundua ilun baitago,
laino trinkoek tapatzen didate
argitasun guztia.
Ezin dut horrela jarraitu,
bizitza honek ez du grazia!

Oztopoen etengabeko jarioak
arnasestuka nauka.
Lasterketa nekagarri hau irabazteko
trikimailurik banu maukan,
lasaiago nengoke, gutxienez...
Eskolatik ateratzeko ordua
iristea dut desiratzen,
baina etxearen babespean ere
ez naiz guztiz lasaitzen.

Sugarra naiz
uholde aldian.
Lore bakartia
basamortu erdian.
Gerlari ankerra
dantzari finen tokian.
Eta izaera aldatzean?
Berdin-berdin, beti izango bainaiz
ardi zuria artalde beltzean!

Gelan sartuta,
kanpoko arazoez ahantzi nahian,
behin eta berriz errepikatzen dut
errugabea naizela agian.
Zoritxarrez, neuri ere kanpoko argudioek
burua jan didate ia.
Kideek ez naute laguntzat hartzen,
baina ez da harritzekoa,
neure burua ere ez baitut maitatzen!

Zer egin?
Nola egin aurrera?
Buruan ditut erantzun gabeko
hamaika galdera.
Idaztea ere ez da, jada,
samina bideratzeko aukera.
Iseka egitean inor minduko ez balitz,
agian ulertuko nuke
horren arin ibiltzea hitz eta pitz.

Euria naiz
eguzki izpien pean.
Aldapa bortitza
mendien magalean.
Ihartutako hostoa
harrizko eraikinean.
Eta izaera aldatzean?
Berdin-berdin, beti izango bainaiz
ardi zuria artalde beltzean!

Arazoa errotik heldu eta
bira nahi diot eman,
mina nigandik kanpo
bidali hegan.
Dena kontatuko dut
idazteke dudan istorioan.
Ez da izango ipuin arrunta askoren artean,
narrazioa markatuko baitut
ene azalean!

Margolana naiz, besoak
eskumuturreko gorriz apaindua.
Jendeak ikusten nauenean
dio galdu dudala burua,
zenbat maite nauten
dudala ahaztua.
Kontuan hartu naute egoera aldatzean,
baina gogoratu beti izango naizela
ardi zuria artalde beltzean!